

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### AHOLKULARITZA JURIDIKOA

#### **230/20 prozedura laburtuan epea jartzea**

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegia administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —230/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari da; 16249451C nortasun-agiriaren titularrak aurkeztu zuen errekurtsoa, behin betiko baja sustatua ezesteko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak 2020ko ekainaren 2an emandako ebazpenaren kontra, eta TGBk 2020ko maiatzaren 15ean hartutako erabakiaren kontra, zeinaren bidez Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 86. 89. artikulua bertan behera geratu baitziren. Horrenbestez, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bederatzi eguneko epea jarri da, beren interesetarako komenigarritzat jotzen dutenek bertara ager daitezen, lege beraren 23. artikuluari jarraiki

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 7an

*Udal legelaria*

**RICARDO SOLÁUN GONZÁLEZ**